



## 12.02.07AN UDALBATZAK EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### BERTARATUAK:

*Ane Miren Echebarria Mendizabal andrea  
Miren Edurne Uribarren-Iturrieta Larrañaga andrea  
Andoni Solupe Amozarrain jauna  
Ramón Ajuria Uranga jauna  
Lierni Altuna Ugarte andrea*

*José Ramón Uribe Uriarte jauna*

*Iñaki Nafarrate Kortabarría jauna*

### EZ BERTARATUAK:

*Martín Damián Echave Echevarría jauna  
Idoia Beitia Izurategi andrea*

*Bi mila eta hamabiko otsailaren 3an arratsaldeko seietan (18:00) ez da Udalbatza egiten arrazoi klimatologikoak direla medio.*

*Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamabiko otsailaren 7an, arratsaldeko zazpiak (19:00) direnean, goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, lehenengo deialdian, Ramón Ajuria alkatearen lehendakaritzapean eta Amagoia Zubillaga Jauregi ordezeko idazkariaren laguntzarekin. Alkateak, quorum dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:*

### 1.- 11.12.28KO OHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

2011ko abenduaren 28an Udalbatzak eginiko bilkuraren aktaren zirriborroari buruz korporazio-kideren batek esatekorik duen galdetu du alkate jaunak.

Inork okerrik azaldu ez duenez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin, ondorengo ERABAKI DU:

2011ko abenduaren 28ko bilkuraren akta onartzea.

### OGASUNA

### 2. 2012KO AURREKONTU OROKORRA: AKATS MATERIALAK ZUZENTZEA, BIDEZKOA BADA.

Ogasun batzordeak ondoko diktamena igorri du:

*2011ko azaroaren 28an egindako ogasuna batzordean 2012rako aurrekontuaren espedientea aztertu zen eta Udalbatzari hura onartzea proposatu zitzaion.*

*Ondorengo transkripzio akatsak atzeman dira:*

*01.610.227.070 inbentarioa 39.000 €*



esaten duenean, 01.610.643.000 inbentarioa 39.000€ esan behar du.

**Udalbatzari proposatzen zaio akats hau zuzentzea 30/1992 legearen 105 artikuloiari jarraituz.**

Jarraian, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio. Emaitzak ondorengoa izan dira:

6 aldeko boto.

Beraz, Aramaioko Udalbatzak gehiengo absolutoz ondorengoa ERABAKI DU:

**Lehena.-** Transkripzio akatsak zuzentzea 30/1992 legearen 105 artikuloiari jarraituz onartzea.

**Bigarrena.-** 2012ko Aurrekontu orokorraren espedientean akatsa zuzentzea eta Arabako Lurralde Historikoko aldizkari ofizialean akats zuzenketa argitaratzea.

## **HIRIGINTZA**

---

### **3. ETXAGUEN AUZOKO HIRI-AZPIEGITURAK ERABERRITZEKO KONTRATAZIOA: NEURRIZKANPOKO ESKAINTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA KONTRATAZIO MAHAIAREN ESLEIPEN-PROPOSAMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Mahaiaren gainean utzi da.

\*\*Arratsaldeko 19:14ak direnean Lierni Altuna Ugarte zinegotzia azaldu da.

## **EUSKARA ETA HEZKUNTZA**

---

### **4. DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEAREKIN HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA GARATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA, BIDEZKOA BADA.**

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak hurrengo diktamena igorri du:

#### **AURREKARIAK**

- ✓ Debagoieneko Mankomunitateak, lanbide prestakuntzarako programa garatzeko hitzarmena sinatzeko proposamena luzatu dio Aramaioko Udalari.
- ✓ **Hauek dira hitzarmena sinatzeko ematen diren arrazoiak:**

Aramaioko Udala ez da Debagoieneko Mankomunitateko kide baina gazte bat du 2011-12 ikasturte honetan bertan ikasten.

- Horregatik, Debagoieneko Mankomunitateko gobernu juntak zera erabaki du: Aramaioko ikasle hau Mankomunitateak garatzen duen Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programan onartzeko Aramaioko Udalarekin Lankidetza hitzarmena sinatzea.

**Hori dela eta, EUSKARA ETA HEZKUNTZA Batzordeak ondorengo proposamena egiten du:**

#### **ERABAKIA:**

- Debagoieneko Mankomunitatearekin hitzarmena sinatzea, honekin batera aurkezten den dokumentuan zehazten diren baldintzetan.



- Mankomunitateko idazkariari honen berri ematea eta horrela hitzarmena sinatzeko eman behar diren pausuak zehaztea.

Jarraian, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio, 7ak ados daude ondorengoa erabaki duelarik:

**Lehena.-** Debagoienako Mankomunitatearekin hitzarmena sinatzea Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programan aramaioar batek parte hartu ahal izateko.

**Bigarrena.-** Programa horretan parte hartuko duen aramaioarragatik, 2011-2012 ikasturtean 750 euro ordaintzea Debagoienako Mankomunitateari.

**Hirugarrena.-** Debagoienako Mankomunitatearekin hitzarmena sinatzeko Alkatea ahalmentzea.

### **AZTERGAJETATIK KANPO PROPOSATURIKO GAIAK**

Udal Gobernuari Kontrola eta Jarraipena puntura pasatu baino lehen, Alkateak galdetu du ea Talde Politikoren batek premiazko gairen bat aurkeztu nahi duen, 2568/1986 Errege Dekretuaren 83 atalaren babespean onartzen den aukera erabiliz.

Aurrekoaren arabera, ondoko gaia aurkeztu da:

- ITURRI-ZURI KALEKO OBRA: ABALA ITZULTZEA.

Aramaioko Udalbatzak ahobatez (7ak ados) onartu du gai hau aztergaien zerrendan sartzea.

#### **1.- ITURRI-ZURI KALEKO OBRA: ABALA ITZULTZEA.**

Alkateak ondorengoa azaldu du:

Aramaioko Obra eta Hirigintza batzordeburuak, Sasoi Eraikuntzak enpresak, Iturri-Zuri kaleko aparkalekuak egiteko lanak obragatik jarritako abala itzultzeko eskaera egin duela azaldu du. Abala, Caja Rural de Navarra Sociedad Cooperativa de Crédito erakundeak 2010eko otsailaren 8an emandakoa da, 4.131,25 eurotakoa.

Batzordeburuak, egindako obrak bukatuta daudela esan du eta hauek egin direla ziurtatu dela. Beraz, Iturri-Zuri kaleko aparkalekuak egiteko lanak obragatik Sasoi Eraikuntzak jarritako abala, hain zuzen era, 4.131,25 eurotakoa itzultzeko proposatzen dio Udalbatzari, honek erabaki dezan.

Jarraian, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta, ahobatez, ondorengoa ERABAKI DU:

**Lehena.-** Iturri-Zuri kaleko aparkalekuak egiteko lanak obragatik Sasoi Eraikuntzak enpresak jarritako 4.131,25 eurotako abala, Caja Rural de Navarra Sociedad Cooperativa de Crédito erakundeak 2010eko otsailaren 8an emandakoa, itzultzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Sasoi Eraikuntzak enpresari jakinaraztea.



## UDAL GOBERNUARI KONTROLA ETA JARRAIPENA.

### 5. 144/11 – 10/12 ARTEKO ALKATEAK EGINDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Gainontzeko korporazio-kideen jakinerako, Alkatetzak 144/11tik 10/12 zenbakira eman dituen Dekretuak banatu ziren bilkura-deialdiarekin.

Alkateak gainontzeko korporazio-kideei galdetu die ea zalantzarik duten Dekretu horien inguruan.

Iñaki Nafarrate jaunak baietz esan du, eta honako galdera hauek egin ditu:

- *145/11 dekretua, abenduaren 27an emandakoa, batzordetik pasatu beharko litzatekeela dio.*

*Alkateak: Batzordetik pasatu zela erantzun dio.*

- *146/11 dekretua, abenduaren 27an emandakoa, Hirigintza Batzordetik ez dela pasatu dio eta segregazioak pasatu izan direla. Beraz, Batzordetik pasatzea eskertuko duela.*

*Alkateak: Batzordetik pasatuko direla erantzun dio.*

- *148/11 dekretua, abenduaren 28an emandakoa, Hirigintza Batzordetik ez dela pasatu dio.*

*Alkateak: ez dagoela Batzordetik pasatu beharrik erantzun dio. Hala ere, Idazkariari galdetuko diola ziurtatzeko.*

- *1/12 dekretua, urtarrilaren 4an emandakoa, Batzordetik pasatu gabe dagoela dio.*

*Alkateak: Ongizate batzordetik pasatu zela nahiz eta zegokion batzordea hau ez izan, epea amaitzen zelako. Helburua, informatzea izan zela.*

- *2/12 dekretua, urtarrilaren 4an emandakoa, Batzordetik pasatu gabe dagoela dio.*

*Alkateak: Ongizate batzordetik pasatu zela nahiz eta zegokion batzordea hau ez izan, epea amaitzen zelako. Helburua, informatzea izan zela.*

- *10/12 dekretua, urtarrilaren 20an emandakoa, Batzordetik pasatu gabe dagoela dio.*

*Andonik: Batzordetik ez pasatzearen arrazoia, azken ziurtagiria oraintsu iritsi dela udalera izan da.*

*Iñakik: 9 hilabetez geldi egon ondoren urgentzia horren zergatia eta Batzordean ez komentatzearen arrazoia galdetu du.*

*Andonik: ordaindu beharra zegoela erantzun dio atzerapena zuelako.*



## 6. MOZIOAK

---

### 6.1. BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOA: GAROÑA ZENTRAL NUKLEARRAREN INGURUKOA.

Bildu – Aramaioko Alkartasunak eta EAJ-ko udal-taldeko ordezkariak ondorengo mozioa aurkeztu dute:

2006. urtetik Garoñako zentral nuklearra Espainiar Estatuko zentralik zaharrena da. 1971. Urtean jarri zuten martxan eta 40 urteko balio-bizitzarako izan zen diseinatua, epe hori izazko martxoan gainditu zuelarik.	La central nuclear de Garoña es desde el año 2006 la más vieja del Estado Español. Entró en actividad el 2 de marzo de 1971 y fue diseñada para una vida útil de 40 años, plazo que expiró en marzo del pasado año.
Bere jardueran behin eta berriz izan dituen matxurak zentralak segurtasun arazo larriak dituenaren froga dira, eta honi, korrosioaren ondorioz sortutako pitzadura arazoa gehitu behar zaio.	Los sucesivos fallos a lo largo de su actividad demuestran que la central sufre serios problemas de seguridad a lo que hay que sumar un problema de agrietamiento consecuencia de la corrosión.
Zentrala lanean jarraitzeak onartezina den arriskua suposatzen du ingurugiroarentzat eta segurtasun eta osasun publikoarentzat, arriskuan jartzen baititu istripu kasuan eraginak sufrituko litzuzkeen inguruan bizi diren milioika pertsonen bizitzak.	La prolongación de su funcionamiento supone un riesgo inadmisible para el medioambiente y la seguridad y salud pública, poniendo en riesgo la vida de millones de personas que residen en el entorno de afección en caso de accidente.
Arrisku guzti hauen jabe, Euskal Herriko, Arabako eta Gasteizko gizarteak, azken urteotan, behin eta berriz eta modu masiboan eskatu du zentralaren itxiera.	Consciente de este riesgo, la sociedad de Euskal Herria, de Araba y de Gasteiz ha reclamado de manera reiterada y masiva en los últimos años el cierre inmediato de la central.
Instituzioetatik ere, Gobernu Autonomikoak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, azken hamarkadan sarri azaldu dira gai honen inguruan, Estatu Espainiarreko Gobernuari zentralaren itxiera behin eta berriz eskatuz.	También desde las instituciones, tanto el Gobierno Autónomo como la Diputación de Araba y el Ayuntamiento de Gasteiz se han posicionado en numerosas ocasiones a lo largo de los últimos diez años en esta materia y han reclamado al Gobierno del Estado Español la clausura de dicha central.
Frogatuta dago Garoñaren ustiapen baimenaren luzatzeak ez daukala justifikaziorik, izan ere, zentralaren ekarpen energetikoa honezkero bestelako sistema berriztagarriek betetzen baitute.	Está demostrado que la prolongación de la licencia de explotación de la central nuclear de Garoña no es justificable ya que su aportación energética está sobradamente cubierta por sistemas de generación renovable.
Hala ere, azken urteotan Espainiar Estatuko Gobernu ezberdinek zentralaren bizitza luzatzen tematu dira, ingurugiroa eta milioika pertsonen bizitzak arriskuan jarriz. Halako erabaki bat Espainiar Estatuko Gobernuak, zentralaren jabe diren, konpainia elektrikoen interes ekonomikoekiko mesede gisa baino ezin da ulertu.	A pesar de todo esto, en los últimos años los diferentes Gobiernos del Estado español se empeñan en prorrogar la vida de la central poniendo en riesgo el medioambiente y la salud de millones de ciudadanos y ciudadanas. Una decisión que solo puede responder a la connivencia por parte del Gobierno del Estado Español con los intereses lucrativos de las compañías



eléctricas propietarias.

Ekonomia ekologizatzea premiazkoa eta beharrezkoa da. Gure lurraldea jasangarria egiteak, Garoñaren jardueraren luzapenak suposatzen duen arrisku bizia ekiditera eraman behar gaitu. Era berean, energia iturri berriztagarrien aldeko apustu argi eta atzeraezina egiteaz gain, gaur egungo energia kontsumo maila birplanteatu behar dugu.

Es urgente y necesario ecologizar la economía. Hacer del nuestro un territorio sostenible precisa no ponerlo en situaciones de riesgo extremo, como la pervivencia de la actividad de Garoña supone, y hacer una apuesta clara, inequívoca e inaplazable por las fuentes de energía renovables y ecológicas junto a un replanteamiento del nivel de consumo energético actual.

-Guzti hau kontutan izanda, honako adierazpena aurkezten dugu Aramaio Udalaren Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onartua izan dadin:

Teniendo en cuenta todo lo anterior, presentamos a este pleno del Ayuntamiento de Aramaio, para su debate y aprobación, la presente declaración:

- Udal honek Espainiar Estatuko Gobernuari eta bere Industria, Energia eta Turismo Ministerioari Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra berehala itxi dezaten dei egiten die.

- Este Ayuntamiento reclama al Gobierno del Estado Español y a su Ministerio de Industria, Energía y Turismo el inmediato cierre de la central nuclear de Santa María de Garoña.

- Udal honek Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra geldiaraztea xede duen edozein ekimen babesteko konpromisoa hartzen du.

- Este Ayuntamiento se compromete a secundar todas aquellas iniciativas que tengan como objetivo la paralización de la central nuclear de Santa María de Garoña.

- Udal honek zentral nuklearrek suposatzen duten arriskuen inguruko lanketa dibulgatzailea indartu eta sustatzeko konpromisoa hartzen du.

- Este Ayuntamiento se compromete a promover y fomentar la labor divulgativa entorno a los riesgos derivados de las centrales nucleares.

- Udal honek "NUKLEARRIK EZ, GAROÑA ITXI ORAIN!" lema txertatuko du dokumentu ofizial eta Udalak sortzen duen bestelako publikazio guztietan.

- Este Ayuntamiento se compromete a incluir el lema "NUKLEARRIK EZ, GAROÑA ITXI ORAIN!" en todos los comunicados, documentos oficiales y publicaciones en general que se emitan desde el Ayuntamiento.

- Kontsumoaren gutxitze eta energia iturri berriztagarrien erabilera oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Energia sistema publiko batetik abiatuz.

- Hacemos una apuesta clara por la priorización del ahorro energético mediante la reducción del consumo y el uso de fuentes renovables ecológicas a partir de un sistema público de energía.

- Honako Osoko Bilkuraren akordioa posta bidez igorriko zaie Espainiar Estatuko Gobernuko presidente den Mariano Rajoyri , Industria, Energia eta Turismo Ministro den Jose Manuel Soriari eta zentralaren %50aren jabe den Iberdrola konpainia elektrikoari.

- El presente acuerdo plenario será remitido por correo tanto al Presidente del Gobierno Español, Sr. Mariano Rajoy, como al Ministro de Industria, Energía y Turismo, Sr. José Manuel Soria, así como a la compañía eléctrica Iberdrola propietaria del 50% de la central.

Jarraian, Aramaio Udalbatzak mozioa aztertzea bidezkotzat jo eta, eztabaidarik sortu ez denez, bozkatzeari ekin dio. Bozak zenbatu ondoren, Aramaio Udalbatzak 7 zinegotzien aldeko boza, gehiengo absolutuz, onartu du mozioa.



## **6.2. BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOA: GIPUZKOAN AZPIEGITURA-LAN HANDIAK GELDIARAZTEAREN ALDEKOA.**

Bildu udal-taldeko ordezkariak, Aramaioko AHT gelditu! Taldeak hala eskatuta, ondorengo mozioa aurkeztu dute:

### **GIPUZKOAN AZPIEGITURA-LAN HANDIAK GELDIARAZTEAREN ALDEKO MOZIOA**

Urteak dira erakunde publikoetatik ingurumenean, gizartean eta ekonomian izugarritzko eragina duten azpiegitura-lan handien aldeko apustua egiten hasi zirela. Apustu horrek garapen-eredu jakin bat bultzatu du eta, aldi berean, pixkanaka argumentuz hustutako eta itxura hutsean oinarritutako gizarte-eredua ere hedatu da. Herritarron ongizatea eta ingurumenarekiko errespetua ardatz dituen ereduaren alde urteetako lana egin dugun herri-mugimendu eta taldeok Gipuzkoa mailan bat ein eta azpiegitura-lan handiak gelditzeko eta garapen-ereduaren aldaketa sakon baten beharra aldarrikatzeko infomazio, hausnarketa, eztabaida eta mobilizazio dinamika berria jarri dugu abian. Hala, dinamika horren buruan, datorren otsailaren 4an, Donostian, elkarrekin deitu dugun manifestazioa genuke.

Adierazi behar da, Gipuzkoa mailan baterako dinamika bultzatzearen arrazoi nagusietako bat orotariko azpiegitura-lan handien alde, azken hileotan, Gipuzkoan burutu duten kanpaina politiko eta mediatiko bortitza izan dela. Kanpaina horretan, besteak beste, Abiadura Handiko Tren, Errauskailua, Jaizkibelgo superportua edota Hondarribiko aireportuaren hedapena jarri dituzte Gipuzkoaren etorkizuna bermatzeko ezinbesteko elementutzat. Horretarako ordea, ez dute inolaz ere, azpiegitura-lan handi horiek ingurumenean, gizartean eta ekonomian izango lituzketen kalteen inguruko eztabaida sozialik egin, ez eta egiten utzi ere, are gehiago, ekonomia mailan hain ezkorra den testuinguru honetan.

Hala, garapen-eredu jakin hori edota garapen bera zalantzan jartzeko joera handiagoa antzematen ari gara gizartean. Herri-mugimenduek behin eta berriz salatu dituzte "interes orokorraren" izenean batere errentagarritasunik gabe lan-baldintzen prekarietatea bultzatze duten gutxi batzuen intereseko azpiegitura megalomanoak, eta argi geratu da herri-mugimenduok geure bidea egin eta herritarrak mobilizatzen jarraitu behar dugula, informazioa zabaldu, jendarte eredu aldatu eta egitasmo horiek geldiaraztearen aldeko lanean. Edozein eratan, bizi dugun krisialdi ekonomikoaren ondorioz ere, azpiegituren inguruko eztabaida herrialde guztietan berriro piztu denean, gure ustez funtsezkoa da egungo garapen-eredua aldatze aldera orain arte inoiz burutu ez den gizarte eztabaida hori bultzatzea.

**Horregatik guztiagatik eta Aramaiok egunerokotasunean Gipuzkoarekin duen erlazioa kontuan hartuta, baita gurean azpiegitura horiteko baten eragina pairatzen ari garela ere, Aramaioko AHT gelditu! Elkarlanaren izenean, Udaleko Udalbatzari, honako erabaki hauek har ditzan eskatzen diogu:**

1. Udal honek, otsailaren 4an, larunbata, hainbat herri-mugimendu eta taldek deituta, arratsaldeko 17:30ean, Donostiako Boulevardetik "GIPUZKOA DESBERDIN BATEN ALDE, EREDUA ALDATU: AZPIEGITURA-LAN HANDIAK GELDITU!" lemapean aterako den manifestazioarekin bat egiten du eta herritarrei parte hartzeko deia egiten die.
2. Udal honek bat egiten du ingurumenean, gizartean eta ekonomian sekulako eraginak dituzten azpiegitura-lan handiak geldiaraztea eta horien inguruan gizarte-eztabaida bultzatzea ezinbestekoa denaren ideiarekin eta, beraz, konpromisoa hartzen du bere esku dagoen guztia egiteko herritarrak informatu, eztabaida-guneak ireki eta hitza emateko. Azken urteotan gailendu den politika egiteko moduak herritarrak ikusle huts bihurtzera kondenatu ditu eta herritarrak beren etorkizunaren jabe izan daitezen, erakundeek gardentasuna, zuzentasuna eta parte-hartzea izan behar dute oinarri. Gainera, Udal honek bere buruarekiko ez ezik, azpiegitura-lan handien arloan



eskumenak dituzten gainerako erakundeei azpiegitura horien inguruko gogoeta egin eta gizarte-eztabaidari bide emateko eskaera egiteko konpromisoa hartzen du.

3. Azkenik, udalerrian bertan izan duen eta izango duen eragina dela eta, Udal honek bereziki Abiadura Handiko Trenaren azpiegituraren aurrean bere aurkakotasuna adierazten du.

Eskaera honen sinatzaileek Udalbatzari akordioa puntuz puntu bozkatzeko aukera ematen diote, hala nahi izanez gero.

Jarraian, Aramaioko Udalbatzak mozioa aztertzea bidezkotzat jo eta, eztabaidarik sortu ez denez, bozkatzeari ekin dio. Bozak zenbatu ondoren, Aramaioko Udalbatzak 5 zinegotzien aldeko bozarekin eta bi aurkako (EAJ/PNV taldeko zinegotziarena eta Aramaioko Alkartasuna taldeko zinegotziarena) onartu du mozioa.

## 7. ESKARIAK ETA GALDERAK

Eskariak edota galderarik duten galdetu die Alkateak gainontzeko korporazio kideei. Iñaki Nafarrate zinegotziari hitza eman zaio, eta honek hurrengo galdetu/adierazi du:

1.- Oletako etxebizitza: Hirigintzako azken batzordean, Oletako gai bat aztertu genuen. Restaurantea izandakoa etxe bizitza bihurtzeko eskaera zen. Eskaera hau Arau berriekin ezin da onartu, udalak zailtasunak jarri duelako Oletan etxe berriak egiterakoan, eta ezin da egin bat ere ez.

Kasu honetan baimena ematen zaio oraingo Norma Subsidiarioak onartzen dutelako eta Plan berria martxan ez dagoelako. Nik zalantzak dauzkat erabaki hau ondo dagoenik eta txosten juridikoa egin dadila eskatzen dut.

Garbi dago hurrengoko urteetan Oletan arazoak egongo direla, Plan berriak onartu baino lehen "la primera en la frente" esaten den bezala.

2.- Polikiroldegia zikin dagoela kesak jaso ditut.

3.- Andramariko erreteila egiteko eskaera urtarrilaren hasieran egin zen, eta oraindik ez da eraman Hirigintza batzordera.

*Andonik erantzun dio, Hirigintza Batzordeen maiztasuna handitzea aztertuko dutela.*

4.- Udal plenoak egiteko datak ez dira betetzen, %50<sup>a</sup> ez da bete Legealdi honetan. 11-9-2 ez, 11-9-28 bai, 11-10-26 si, 11-12-02 ez, 11-12-28 bai eta 12-02-03 ez.

5.- Udal langileak funtzionarioak egin baino lehenago, aldeko txosten juridikoa egitea eskatzea nahi nuke.

6.- Telefonikako txabola ondoen, beirako kontenedore ondoan eta ingurua egun batzuetan beirarekin zikin, egon da.

*Jose Ramón Uriberi arazo hori konpontzeko eskatu dio.*

7.- Txatarrak eta muebleak, data ez egokietan ateratzen dira eta batzuek udal lokaletatik, beraz hau zaintzea eskatuko nuke.

8.- Matxin kaleko auzokide batzuei, udaletik idatzik bat pasatu zaie orma batzuk konpontzeko eta Hirigintza batzordetik ez da pasatu. Zergatik bidali zaie?, zein da arrazoia?.





*Liernik erantzun dio, hormak jausten ari zirenaren kexa, auzo alkateak jarri zuela. Udalak kexa aintzat hartu zuela eta jasotako eskaera erantzun zuela, besterik ez.*

9.- Sastiñan azken meza egiterakoan, San Sebastian egunean, persona batek labandu eta erori egin zen, oso labankorra dagoelako. Obra hau bukatu berri dago, konpontzeko asmorik badago? Eta accesibilitate araua betetzen du eraikiña?.

*Lierni eta Andoni gai hori begiratzeko gelditu dira.*

10.- Kurtzeta gainean pistak oso egoera txarrean daude, Zuberokoa, Bide zaharra eta aparkalekua. Zergatik ematen zaie baimena lanak egiteko neguan?, lehen debekatuta zegoen.

11.- Cuatrovientoseko irteera nola dago?.

*Oso gaizki dagoela erantzun zaio.*

12.- Salturraldeko bidea nola dago? Aldundiko txostena aurkeztu ondoren?.

13.- Osasun zentroko txandak hartzeko, telefonoen kostoa kobratu egiten zaio usuriori. Zergatik kobratzen zaio telefonoa eta bertan kontsultorioan txandak eman ez?.

14.- Irubidetako etxetik noiz kenduko dira kableak?, Ibarako etxe bizitza bakarria da kableak fatxadan daukana.

15.- Azken edurteekin egon diren arazoak eta kexak atera.

*Jose Ramón Uribek erantzun dio ahal dena egin dela. Kale eta errepideetan 8.000 kg gatz bota direla.*

16.- Arkeoko aktak ez dut jaso azken hilebeteetan, Ogasunako batzordea ez da bildu azaroaren 28tik. Urria, azaroa, abendua eta urtarrilako arkeo aktak eskatzen dut bidaltzea ahalik eta azkarren.

*Emango zaizkiola erantzun zaio.*

*Honekin eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, iluntzeko 20:15ak direnean, alkate jaunaren sinadurarekin hemen jasotzen den bilkurari amaiera eman diogu.*